

Webgune ofiziala: [www.herrismartik.eus](http://www.herrismartik.eus)

## **EUDELeK gidari lanak egingo ditu Udalen berrikuntzan, Gobernantzaren eta udal garapen adimendunaren bidez**

- Euskadiko Udalen Elkartea Eusko Jaurlaritzarekin ari da lanean, Euskadi 2020 Agenda Digitala tokiko mailan hedatzeko; horrenbestez, marko horretan, **'HERRI SMARTIK-udalerri adimendunak' programa berria jaio da, udalei berrikuntza publikoan eta tokiko administrazioaren modernizazioan laguntzeko.**
- Ekintza-plan estrategiko honek lau laguntza-lerro eskaintzen dizkie udalei 2017-2020 aldirako: **Administrazio elektronikoa, antolaketa-eraldaketa eta aldaketa kulturala** sustatzea, **Gobernantza ona** garatzea eta **lurralde/udalerri adimendunen ('Smart Cities') sareko sistema** sortzea.
- EUDELeK **'LURRALDEAK'** sortuko ditu, politikariz eta teknikariz osatutako **azpibatzerde-sarea**. Udalen arteko topaguneak izango dira; bertan, behar zehatzak **identifikatu, eta lurralde bakoitzaren tokiko errealitatearentzako erantzunak bilatuko dira.**

Bilbon, 2017ko azaroaren 14an. Gaur, goizean, EUDELeK udal-langileentzako lantalde bat antolatu du, **"Herri SmartIK-udalerri adimendunak"** tokiko berrikuntza ekintza-plana ezagutarazteko. Plana EUDELeK eta Eusko Jaurlaritzak antolatu dute, hurrengo urteetan 'Euskadi 2020 Agenda Digitala' EAEko udalerrietan sustatzeko. Agenda Digitalaren programa berriak herrialde mailako tokiko estrategia adimendun bat garatzea dakar, udalen parte-hartze aktiboan oinarrituta eta hiru lurraldeetako Foru Aldundiek lagunduta.

50 politikari eta teknikariren aurrean, Imanol Landa elkarteburuak eta EUDELeKo Berrikuntza Batzordeko alkateak (Elgoibar, Ermua, Larrabetzu eta Zambrana) lau ekintza-lerro garrantzitsuenak aurkeztu dituzte, udalei, **tamaina eta abiapuntua edozein delarik ere**, tokiko euskal administrazioa modernizatzen laguntzeko. Honen bidez egingo da: 1) **antolaketa-eraldaketa eta aldaketa kulturala** 2) **administrazio elektronikoa** 3) **Gobernantza ona eta etorkizunari begirakoa**, 4) **'lurralde/udalerri adimendunen' sistema sarean**.

Ekitaldiaren hasieran, **EUDELen elkarteburuak** esan duenez, "Udaletan, BERRITZEAK esan nahi du udal kudeaketa herritarrentzako, udalerrietan jarduera ekonomikoa sortzen duten enpresentzako eta, orokorrean, gizarte osoarentzako emaitzarik onenak lortzera bideratzea". Imanol Landa Getxoko alkatearen ustez, "berrikuntza publikoak hirietako kudeatzaileen eta bertako bizilagunen arteko harremana estutzeko balio du. *Teknologia modu "adimendunean" erabiltzean, mesede egingo zaie tresna eta kanal berriei; horien bidez, herritarrek modu aktiboan hartu ahal izango dute parte, eta erantzunkidetasuna sustatuko da.*"

## LURRALDEAK - lurralde bakoitzaren beharrei erantzuteko

Estrategia ezartzeko, eta Berrikuntza Batzordearen ildoei jarraituta, EUDELeK 'Lurraldeak' azpibatzerde-sarea sortzea erabaki du, politikariz eta teknikariz osatua, lurralde bakoitzeko udalen beharrak zein diren identifikatu eta beraien udal errealitatera moldatzeko.

Sareko lan dinamiko hori ezinbestekoa izango da tokiko erakundeei **administrazio elektronikoa** garatzen laguntzeko, eta **NISAE: Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoan** pixkanaka sartzeko; izan ere, horrek udalen eta foru aldundien arteko gertuko kolaborazioa ahalbidetuko du.

## Nazioarteko radarra – Smart Cities eta 'Alkate adimendunak'

Aurreikusitako jardueren artean, **NAZIOARTEKO SAREEKIN konektatuko** da, eta Europako erreferentziazko proiektuak behatuko dira. Horretarako, EUDELeK Smart Cities delakoetan **aditua** den **Igor Calzadaren**, Oxfordeko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailearen, **aholkularitza** izango du. Igorrek **txosten estrategiko** bat egin du, Europako joera berri eta kasu arrakastatsuetan oinarrituta, EAEko udaletan udal garapen adimendunari buruzko eredu bat orientatzeko.

Benetako "udalerri adimendunak" eraikitzea planteatzen du. Planteamendu horretan, 'Smart Cities' delakoen kontzeptu digitalaz harago doa, eta teknologiaren erabilera bitarteko gisa erabiltzen du, eta ez helburu gisa. Horrek **zerbitzu publikoak hobetzea**, eraginkortasun irizpideetan oinarrituta, eta ingurune, ekonomia, demografia, teknologia eta beste hainbat arlotako erronkei erantzuten dien **hiriko eraldaketa** sustatzea du helburu.

Txostenean, Calzadak "alkate adimendunen" lidergo politiko eta berritzailearen aldeko apustua egiten du, eta **herritarrek** agente aktibo modura **hartuko dute parte** (herritar erantzunkidea)-



## Webgune berria eta Tokiko esperientzien bankua

Gaurkotasunari buruzko informazioa, gidaliburuak eta argitalpenak, eta tokiko eta Europako praktika onak [www.herrismartik.eus](http://www.herrismartik.eus) webgunean bilduko dira, eta webgune horren bidez zabalduko dira. Eremu berri honek Euskadiko udalerriek garatutako 'Smart' proiektuak partekatzeko atal bat izango du, TOKIKO ESPERIENTZIEN BANKUA izeneko.

## HERRI SMARTIK 2017-2020 **Lau ekintza-ildo garrantzitsuenak:**

> **1. ildo:** **ANTOLAKETA-ERALDAKETA ETA ALDAKETA KULTURALA**, 41 Tokiko Berrikuntza Agenden eta horietan garatutako 250 proiektuen jarraipen modura. EUDELetik udalen arteko kolaborazio programak eta proiektuak sustatzen jarraitzea, udaletan arrakasta izaten ari diren tresnak eta metodologiak egiteko.



Adibide aipagarrienak:

- **Izapideen eskuliburu** eta administrazioa sinplifikatzeko eskuliburuaren ereduak (5.000 biztanletik beherako udalerrientzat ere).
- **Herritarren arretarako** zerbitzuak ezartzeko trebakuntza eta laguntza.
- Udalentzako **Kudeaketa aurreraturako** eredua (oraindik garapen fasean).

> **2. ildo:** **ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA:** tokiko mailatik, foru erakundeekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta bere erakundeekin batera, oinarritzko plataformak eta zerbitzuak udaletan ezartzen laguntzea, e-administrazioa ezartzeko: NISAE (Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarreragintasunerako Nodoa), Kontratazio Elektronikoa, legeriak eskatutako espedienteen eta gainerako baldintzen kudeatzailea (erregistroa, ohartarazpena, sinadura, artxibo elektronikoak...).

> **3. ildo:** **GOBERNANTZA**, Portaera Kodearen eta Gardentasun Sarearen jarraipen modura. EUDElen eta Europako Batzordearen proiektu pilotua, Gobernantza demokratiko onari buruzko 12 printzipioak ardatz dituen Gobernantzaren **alorreko bikaintasuneko zigilu europarra** ezartzeko.



> **4. ildo:** **LURRALDE/UDALERRI ADIMENDUNAK. Udalerr**  
**adimendunen sareko sistema** sortzea sustatzea, lurralde adimenduneko proiektuak martxan jartzeko xedez udalen arteko ikasketa giroa sustatuta ('Smart' proiektu/prozesuen **praktika onak** identifikatu eta hedatu).



Informazio gehiagorako: [www.herrismartik.eus](http://www.herrismartik.eus)